


Euskara aztergai



Aditz laguntzailearen ezabaketa eta hizkuntzaren irakaskuntza

Patxi Salaberri

Euskaraz, beste edozein hizkuntzatan bezala, hiztunek sarri askotan ekonomia bilatzen dute, hots, mintzatzerakoan ahal duten lan gutxiena egiten saiatzen dira beren komunikazio helburuak betetzeko. Honen ondorioetako bat, beste aunitzen artean, hemen sakondu nahi dugun aditz laguntzailearen ezabaketa dugu. Ezabatze hau¹ erabat naturalki gertatzen da jaiotzetik hizkuntza ikasi duten hiztunengan, baina oso korapilotsu eta arazoduna izaten da euskara bigarren mintzaira dutenentzat.

Arazoa hitz egiterakoan planteiatu arren, idazteko orduan ere zalantzak izaten dira nagusi ezabaketa nola buru daitekeen erabakitzerakoan, eta seguritate-falta honek hiztun berria forma osoak erabiltzera bultzatzen du, hain jatorrak eta suposatzen duten ekonomiarengatik hain praktikoak diren ezabaketadun esaerak bazterrera uzten dituela. Gu etsi-etsiak gaude ikasleak² ezabaketa egiteko dauden moduak eza-gutu eta beretu behar dituela, goraxeago esan bezala, jatorriasunarengatik, mintzatzerakoan suposa dezaketen eko-

nomiarengatik, eta, era berean, ikaslearen inseguritate-iturria ahitzeagatik³.

Orain eskuataratzen zaigun arazoa hau da: nola egin ote daiteke aditz laguntzailearen ezabaketa euskaraz? Honelako zalantzen aurrean, hoberena, gramatikara jotzea da ezbairik gabe, baina kasu honetan euskal gramatikek ez digute laguntza handiegirik eskaintzen arazo hau konpontzeko⁴. Beraz, gramatikek eskaintzen digutena nahikoa ez denez, guk iturrietara, hots, liburu klasikoetara, jotzea erabaki genuen. Baina, aurrera jarraitu aurretik, ikus dezagun adibide batzuren bidez aditz laguntzailearen ezabaketaren arazoa zertan dagoen. Kasuak franko dira, baiezkoan eta ezezkoan, eta nahikoa korapilatzen da osagarri zuzena tokiz aldatzen badugu, edo sujetu bakarreko perpausak aukeratu beharrean bikoak hautatzen baditugu⁵. Guk, gauzak errazte aldera, baiezko perpausak aukeratu ditugu eta sujetu bakarrekoak:

a) *Partizipio ezburutuarekin*

1. Eredua:

- 1.1. -ten du eta -ten Ø
- 1.2. -ten du eta Ø Ø

2. Eredua Ø
 - 2.1. -ten Ø eta -ten du
 - 2.2. Ø Ø eta -ten du

b) Etorkizun-partizipioarekin

1. Eredua:
 - 1.1. -ko du eta -ko Ø
 - 1.2. -ko du eta Ø Ø
2. Eredua
 - 2.1. -ko Ø eta -ko du
 - 2.2. Ø Ø eta -ko du

Hurrengo pausua, beraz, liburuetara jotzea izanen da, gure klasikoek⁶ goiko eskematxo hori zer neurritan betetzen duen ikusteko. Aztertu ditugun idazle eta idazlanak hauek dira:

1.— *Juan de Tartas. Ontsa hiltzeko bi-dea*⁷

Obra honetan bi ereduak azaltzen zaizkigu, baina nagusitasuna lehen ereduak dauka (120/60 adibide).

2.— *Jean Etxepare. Buruxkak-Jean Etxepare mirikuaren idazlanak*⁸

Etxepareren lanetan ere bi ereduak agertzen zaizkigu eta lehenak dauka nagusitasun osoa (100/6 adibide).

3.— *J. Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: gizon! Zezenak errepublikan*⁹

Autore honen bi liburuetan ere nagusitasun osoa lehen ereduari dagokio,

baina Tartasen obran baino proportzio handiagoan (55/10 bat adibide).

4.— *J.Etxeberri Sarakoa. Idazlan hau-tatuak*¹⁰

Idazle honen lanean bi ereduak aurkitzen ditugu, baina Iparraldeko gaine-rako autoreekin gertatzen zenaren kon-tra, honengan bigarren ereduak du nagusitasun osoa (20/100 bat adibide).

5.— *Joakin Lizarraga. Doctrina Chris-tioaren Cathechima*¹¹

Autore nafarrak bi ereduak erabil-tzen ditu, baina ez neurri berean. Biga-rrena da nagusia, eta alde handiz gai-nera (9/53 adibide).

6.— *J.B. Agirre Asteasukoa. Eracusal-diak-2*¹²

Liburu honetan bigarren ereduak da gehien agertzen dena. Modelu honen adibideak ehun inguru dira, lehenare-nak berriz, sei bat.

7.— *J.A.Mogel. Peru Abarka*¹³

Mogelen obran ere orain arte ikusi ditugun bi ereduak aurki ditzakegu. Koordinazio gehienak bigarren mode-luaren bidez daude eraturik, baina, ha-la ere, bada lehenaz baliatuz lorturiko mordoxka polit bat (12/34 adibide).

Aurreko guzti hau tauletara pasa-tuaz, hau daukagu:

a) Partizipio ezburutuarekin

• Lehen ereduak

Autoreak	1.1. -ten du eta -ten Ø	1.2. - ten du eta Ø Ø
Tartas	bai	ez
Etxepare	bai	ez
H. Urruty	bai	ez
Etxeberri	bai	ez
Lizarraga	bai	ez
Agirre	bai	ez
Mogel	ez	bai

• *Bigarren eredua*

<i>Autoreak</i>	<i>2.1. -ten Ø eta -ten du</i>	<i>2.2. Ø Ø eta -ten du</i>
Tartas	bai	ez
Ettxepare	bai	bai
H. Urruty	bai	bai
Etxeberri	bai	bai
Lizarraga	bai	bai
Agirre	bai	bai
Mogel	ez	bai

b) Etorkizun partizipioarekin

• *Lehen eredua*

<i>Autoreak</i>	<i>1.1. -ko du eta -ko Ø</i>	<i>1.2. -ko du eta Ø Ø</i>
Tartas	bai	ez
Ettxepare	bai	ez
H. Urruty	bai	ez
Etxeberri	bai	ez
Lizarraga	ez	bai (behin)
Agirre	bai	ez
Mogel	bai	bai

• *Bigarren eredua*

<i>Autoreak</i>	<i>2.1. -ko Ø eta -ko du</i>	<i>2.2. Ø Ø eta -ko du</i>
Tartas	bai	ez
Ettxepare	ez	ez
H. Urruty	ez	ez
Etxeberri	bai	ez
Lizarraga	ez	bai
Agirre	bai	bai
Mogel	ez	bai

Laburtuz, eta aspektu morfemei dagokienez, esan dezakegu lehen ereduan, bigarren aspektu morfema gorde egiten dela Mogel eta Lizarragan (behin) ez

beste autore guztietan. Beraz, itxura denez, joera garbi samarra dago, Mogelen eta Lizarragaren salbuespenak gorra-behera.

Orain, autoreok lehen edo bigarren ereduaren nagusitasunaren arabera sailkatzen baditugu, eskematxo hau ateratzen zaigu.

- Lehen eredia nagusi: Etxepare - H. Urruty - Tartas (ordena honetan).
- Bigarren eredia nagusi: Etxeberri - Lizarraga - Agirre - Mogel (ordena honetan).

Beraz, ondorio gisa, esan dezakegu estiloak zerikusia izan badezake ere, joera nabarmena dagoela; Iparraldeko idazleetan (Etxeberriren lanean ezik) lehen ereduaren alde, eta Hegoaldeko autoreetan bigarrenaren alde.

Hortaz, klasean aditz laguntzailearen ezabaketa lantzean, kontuan hartu beharko ditugu bi gauza:

1. Lehen eredian bigarren morfema gorde egiten dela.
2. Ikasleen arabera (euskaltegia dagoen tokiaren arabera) eredu bata edo bestea erakutsi eta landu beharko dugula (lehen Iparraldean, bigarrena Hegoaldean), nahiz bestea ere, gelditzen dena, hein batean bederen ukitu.

Beste arazo bat hau da: zer mailatan (edo urratsetan) sartu eta sakondu behar ote da ezabaketa kontu hau? Gure ustez, edozein mailatan ikus daiteke, baina egokien azken urratsak iruditzen zaizkigu; EGArako prestaketa-maila edo.

Bururatzen zaigun hurrengo galdera zera da, hots, nola lantzen ahal den guzti hau klasean. Guk, lehenik eta behin, eskematxoa azalduko genieke ikasleei, hau da, dauden bi ereduak eta hauen barruko azpiereduak zein diren erakutsiko genieke. Gero, aditz laguntzaileak agertzen diren narrazio (txiki) bat geronek grabatu eta entzun araziko genieke. Honen ondoren, kontakizun bera adituko lukete, baina oraingo honetan aditz laguntzailerik gabe¹⁴.

Beste ariketa bat hau izan daiteke: nahi duten pasadizoa kontatzeko esaten zaie ikasleei¹⁵, lehenik osorik, eta

gero, dagokien ereduaren arabera, aditz laguntzaileak eta aspektu morfemak (zilegi denean) ezabatuaz. Bigarren aldian, alegia, ezabaketak burutzen dituztenean, direlako pasadizo horiek grabatu eta azkenean berriaz entzuten dira, hankasartzeak (honelakorik balego) denen artean zuzenduz.

OHARRAK

1. Aurreraxeago ikusiko dugu zein diren dauzkagun aukerak.

2. Zer mailatan erakutsi eta landu behar den puntu hau geroxeago aztertuko dugu.

3. Esperientziak dakigu lehen hizkuntza ez den batean aritzerakoan hamaika zalantza sortzen direla, hizkuntza errealitatea adierazteko tresna baita, eta errealitatea konplexua izanik, adierazkizunak ere konplexuak, nabarrak, eta mota askotakoak izaten dira. Zalantza hauek inseguritatea sortzen dute euskaldunberriaren, eta askotan asmatu arren, arriskua hor dago, eta sentimendu honek kalte baizik ez du egiten.

4. P. Lafittek bere *Grammaire basque* delakoan, osagarri zuzenez ari dela honela dio (357. or): «*un complément direct peut servir à plusieurs verbes*; Ex. *Jainkoa maita ezazue eta ohoratu*»; eta aurreraxeago: «*Dans les cas où le second verbe ne serait pas accompagné d'un auxiliaire à mode personnel impliquent le pronom, il faudrait, comme en français, introduire un vrai pronom au cas voulu*: Ex. *Legoa maita zazue eta hari jarraitu*».

Ithurryk, *Grammaire basque* izenekoan, «*Syntaxe de la rapidité de la phrase*» deritzan puntuan (446. or) honela dio: «*Dans une phrase, il peut se trouver plusieurs verbes périphrastiques, qui tous expriment la même relation quant au mode, au temps, à la personne, au complément, au nombre, etc. Alors, pour la rapidité et la force de la phrase, mieux vaut ne pas répéter l'auxiliaire après chaque Infinitif*».

Goenagak (*Gramatika bideetan*, 241-2. or:) gauzak zuzenkiago ukitzen ditu, eta «*Koordinazio kopulatiboa eta elipsia*» izeneko atalean honela diosku: «*Perpaus koordinatuetan elementuren bat errepikatzen bada, ez da beharrezko biak jarzea, eta askotan, gainera, ez dira jarri behar*». Hurrengo atalean, «*Aditzaren bigarren osagaiaren elipsiaz*» dihardu, laburki bada ere. Hemen aditz laguntzailea ezaba daitekeela dio, honela: «*Aitak sagarrak erosi eta autora eramane zuten*» edo beste modu honetara: «*Aitak sagarrak erosi zituen eta autora eramane*».

Euskaltzaindiak, azkenik, (*Euskal Gramatika. Lehen urratsak-II*) «*Aditzoina perpaus koordinatuetan*» deritzan kapituluan (72. or) honela dio: «*aditzoinaren erabilera manatzen duten bi aditz edo bi perpaus koordinatzen direlarik, aditz laguntzailearik bat ezaba daiteke, aditzoina bera bakarrik uzten dugularik orduan*».

a-Ordu deno begiak idek ditzagun eta gisa hartar rat berma (H. Urruty).

b.-Bakean har eta emenda dadin (J.L.Davant).

Aurrerago (93. or) «partizipioa perpaus elkartuetan» gaiaz ari delarik, zera dio, alegia, Iparraldeko euskalkietan laguntzailearen ezabaketa bereziki eskuineko aditzaren gainean gertatzen dela.

5. Adibide moduan, eta osagarri zuzenaren tokialdatzeari dagokionez, hau aipa daiteke:

Guzti hau, jakina, oso lotua dago informazio mailarekin, alegia, ordena markatua/ezmarkatua, eta beraz, mintzagai/iruzkin egiturarekin.

6. Euskalkien artean joera berdin/ezberdinak ba ote den ikusteko, euskalki ezberdinen ordezkari jatorrak hartzen saiatu gara. Hala ere, kasuren batean (Tartasenean adibidez) jatortasun hori ez da oso segurua.

7. Jakin. Arantzazu, 1972.

—	Guk	honratzen	ditugu	eta	inbokatzen	ditugu	sainduak
—	—	—	Ø	—	—	—	—
—	—	—	ditugu	—	—	Ø	—
—	Guk	honratzen	ditugu	sainduak	eta	inbokatzen	ditugu
—	—	—	—	—	—	—	Ø
—	—	—	Ø	—	—	—	ditugu
—	Guk	sainduak	honratzen	ditugu	eta	inbokatzen	ditugu
—	—	—	—	Ø	—	—	—
—	—	—	—	ditugu	—	—	Ø

8. Elkar, Donostia, 1980 / Elkar, Donostia, 1984.

9. Jakin, Arantzazu, 1971 / Jakin, Arantzazu, 1972.

10. Lur, Donostia, 1972.

11. Principe de Viana-Euskaltzaindia, Iruñea, 1979.

12. Hordago, Donostia, 1978.

13. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1978.

14. Honetarako, jakina, bigarren grabaketa bat egin beharko genuke.

15. Nahi bada, alde zurretik, ipuin batzuk, egunkari-mozkinak... edo horrelako akuiluren bat eman dakieke.

LA ELISION DEL VERBO AUXILIAR Y LA ENSEÑANZA DE LA LENGUA

Los hablantes de euskara, como los de cualquier otra lengua, suelen a menudo buscar la mayor economía posible cuando se comunican mediante la lengua. Una de las consecuencias de esta búsqueda de economía, entre otras muchas, es la elisión del verbo auxiliar.

El problema que se nos plantea es el siguiente: ¿cómo se realiza esta elisión en euskara?; recurrir a las gramáticas de nuestra lengua, si bien nos ayuda en cierta medida, no nos resuelve totalmente el problema, ya que no nos proporcionan toda la información que necesitamos.

Por eso creemos que lo mejor es analizar directamente las obras clásicas de la literatura vasca, y ver cómo realizaron la mencionada elisión los diversos autores. Nuestra intención ha sido examinar escritores clásicos que repre-

sentan a los diversos dialectos del euskara, aunque en algún caso (Tartas) esta representatividad no sea totalmente satisfactoria.

Una vez analizadas esas obras clásicas, se hace un esquema con los dos modelos principales y las dos posibilidades diferentes que hay en cada uno de ellos. Seguidamente, se establece que el primer modelo se debe enseñar principalmente en Iparralde, pues es allí donde tiene mayor vitalidad, y el segundo en Hegoalde, por idénticas razones.

En cuanto al nivel en que deba ser visto y trabajado este punto, creemos que es el curso de preparación para el título EGA el más adecuado. Finalmente se describe, brevemente, un par de ejercicios que pueden ser puestos en práctica para trabajar el tema en cuestión.

ELISION OF THE AUXILIARY VERB AND THE TEACHING OF THE LANGUAGE

Speakers of Euskara, like those of any other language, tend often to find the most economical way of expressing themselves. One of the consequences of this economy of speech, among many others, is the elision of the auxiliary verb.

The question is: how in fact does this elision take place? Searching through the grammar books, though it may help in some measure, does not completely solve the problem since grammar books do not furnish us with enough language data.

Therefore we feel that the best approach involves a direct analysis of classic works of Basque literature in order to see how various authors manage this elision. Our aim is to look

at classical writers who represent the different dialects of Euskara, though in one case (Tartas) this representivity may not be completely satisfactory. After analysing these classic works, we outline the two main models and the two different possibilities arising in each. Following from that, we establish that the first model should be taught principally in Iparralde, since it is there that it has greater vitality, and the second in Hegoalde for identical reasons.

With regard to the level at which this aspect of the language ought to be introduced and practised, we believe that the preparatory course leading to the EGA qualification would be the most appropriate. Finally, we describe in brief two exercises which can be adopted to provide practice in the point under discussion.

L'ELISION DU VERBE AUXILIAIRE ET L'ENSEIGNEMENT DE LA LANGUE

Ceux qui parlent l'euskara (euskaldunak = bascophones), comme d'ailleurs ceux qui parlent une autre langue, ont l'habitude de chercher la plus grande économie possible quand ils se communiquent au moyen de la langue. L'une des conséquences, entre beaucoup d'autres, de cette quête d'économie c'est l'élimination du verbe auxiliaire.

La problème qui nous est posé est le suivant: comment se fait en euskara cette élimination? Le recours aux grammaires de notre langue, si bien peut nous aider dans une certaine mesure, ne nous résout pas entièrement la problème, étant donné que cet expédient ne nous fournit pas toute l'information dont nous avons besoin.

C'est pourquoi nous pensons que le plus convenable c'est d'analyser directement les ouvrages classiques de la littérature basque et vérifier comment différents auteurs ont effectué cette élimination.

Notre intention a été d'examiner des écrivains classiques qui représentent les différents dialectes de l'euskara bien que, parfois, (Tartas) cette représentativité ne soit pas tout à fait satisfaisante.

Une fois ces ouvrages classiques analysés, on fait un schéma avec les deux principaux modèles et les deux possibilités différentes qu'il y a dans chacun d'eux. Ensuite, on décide d'enseigner le premier modèle principalement en Iparralde, puisque c'est là qu'il a la plus grande vitalité; et le deuxième en Hegoalde, pour la même raison.

Quant au niveau où ce point doit être vu et travaillé, nous croyons que c'est le niveau du cours préparatoire au diplôme EGA qui est le plus adéquat. Finalement on décrit, brièvement, deux exercices qu'on peut mettre en oeuvre pour travailler le thème en question.